

**BERTSOLARITZAREN GIZARTE
ETA KULTUR EZAUGARRIAK**

JON SARASUA MARITXALAR

Euskal Herriko Unibertsitatean Doktoratua

Bertsolaritzaren ikertzailea

Mondragongo Unibertsitatea - Pentsamenduaren Historia Irakaslea

EUSKAL HERRIA

BERTSOLARITZAREN GIZARTE ETA KULTUR EZAUGARRIAK
(JON SARASUA)

Bertsolaritza euskararen komunitatea kokatzen da eta gizartea du oinarri. Bertsolaritzaren estrategia soziokulturalak bertsogintza indartu du, beste euskal ahozko formen artean, bost adierazmaila azpimarratuz (Jendaurreko ikuskizuna edo saioa, Sariaketa eta txapelketa, Taldeko jardun ludiko ez-formala: bertso-eskola, Irakaskuntza arautuko eduki eta ariketa eta Hedabideetako azpigeneroa). Bertsolaritza berezi egiteko balioen artekoak, honakoak aipa litezke: bat-batekotasuna, entzulearen parte-hartzea, zuzenekotasuna, taldekotasuna, kalekotasuna, publikoaren izuera integratua eta bertsolariaren eskuragarritasuna. Ondorioz, gure erronken artean, gure balioak aintzatetsi beharko genituzke, bertsolaritza bizirik dadin (ez iraun), garapen horrek dakarren arriskua hartuta. Ezinbestekoak dira lan horretarako autokonfiantzazko jarrera, transmisioa eta gizartegintzarako tresna bat: Bertsozale Elkarteak.

El bertsolarismo se sitúa en la comunidad del euskera y la sociedad vasca es su base. La estrategia sociocultural del bertsolarismo ha reforzado la creación de bertsos, subrayando cinco niveles expresivos entre las diferentes formas orales de la tradición vasca (actuaciones públicas, campeonatos, actividades lúdicas en grupo no formales, ejercicios y contenidos de la enseñanza reglada y el subgénero de los medios de comunicación). Entre los valores que forman la clave del éxito del bertsolarismo, se encuentran los siguientes: la improvisación, la participación del público, su carácter directo, urbano, la integración del público y la accesibilidad de los bertsolaris. Consecuentemente, entre nuestros retos, deberíamos reconocer nuestros valores, para que el bertsolarismo viva (no solo sobreviva), aceptando los riesgos que todo ello conlleva. Son claves en este sentido una posición de autoconfianza, la transmisión y la Asociación de Amigos de los Bertsos.

Bertsolaritza is settled in the basque language community and based on the Basque society. The sociocultural strategy of bertsolaritza has reinforced the creation of bertsos, emphasizing five expressive levels among the different oral forms of the Basque tradition (public performances, championships, nonformal playful group activities, school exercises and the subgenre in mass media). Between the values which make different bertsolaritza, we can find the following ones: improvisation, participation of the public, its direct, urban character, the integration of the public and the accessibility of bertsolaris. Consequently, between our challenges, we should recognize our values, so that bertsolaritza could live (non just survive), accepting the risks that all this entails. They are key in this sense a self-confidence position, the transmission and the Association of Friends of Bertsos.

Le bertsolarisme est situé dans la Communauté de la langue basque et sa base est la société basque. La stratégie socio-culturelle du bertsolarisme a renforcé la création de bertsos, en soulignant cinq niveaux d'expression entre les différentes formes orales de la tradition basque (activités publiques, championnats, activités ludiques en groupe non-formelles, les exercices dans l'enseignement et le subtype des médias). Entre les valeurs qui forment la clé du succès du bertsolarisme, on trouve les suivants : l'improvisation, la participation du public, son caractère direct, urbain, l'intégration du public et l'accessibilité des bertsolaris. Conséquemment, entre nos défis, nous devrions reconnaître nos valeurs : le bertsolarisme doit vivre, pas seulement survivre, en acceptant les risques que tout cela entraîne. Ils sont nécessaires une position d'autoconfiance, la transmission et l'Association d'Amis des Bertsos.

BERTSOLARITZAREN GIZARTE ETA KULTUR EZAUGARRIAK

Bertsolaritzaren kokalekua: euskararen komunitatea

Euskararen kulturaren baitan, seiehun bat mila pertsonako hizkuntza komunitate batean, du bere tokia bertsolaritzak. Estatu espainiarreko lau lurralde eta estatu frantziarreko hiru lurraldetan dago banatua komunitate hori, eta guztira lurraldeotako biztanleria hiru milioi ingurukoa da. Hizkuntza komunitate txikia dugu, beraz, euskararena, eta bere jatorrizko lurraldean minoritarioa da.

Alabaina, sakonera historiko handiko komunitatea dugu. Hainbat jakintzarako azken datuek bere jatorri aurreindoeuroparra baieztatzen dutela dirudi, euskara Europako hizkuntza komunitate zaharrenetakotzat joz. Badu bere garrantzia gure hizkuntza komunitatearen ibilbideko gakoetan erreparatzeak: sustraiei eusteko erresistentzia, hainbat garai eta testuingurutara etengabe moldatzeko gaitasuna, oreka zailtan izaerari eutsiz. Gako eta jokamodu horiek badute nolabaiteko lotura bertsolaritzaren oraina eta etorkizuna ulertzeko moduarekin eta, oro har, euskararen garabideak bizitzeko moduarekin.

Memento honetan bizi-kinka berezia bizi du euskarak; alde batetik, zenbait lurraldetan hizkuntzaren biziberritzea galtzeko zorian dauka, eta bestetik, normalizazio-garapen prozesu batean egon nahi duen eta dagoen hizkuntza da. Egoera horrek, ordea, bertsolaritzaren mugimenduarentzat zentzu dramatiko eta etsigarria baino gehiago izaera pizgarria eta ludikoa du. Horrek markatu du hein handi batean gure bidea. Azken 20-25 urteotan bertsolaritza antolatu egin da, estrategia soziokultural bat hartu du; eta estrategia soziokultural hori ez dago ulertzerik euskararen minorizazio egoera eta euskararen biziberritze ahaleginaren barruan ez baldin bada. Seguru asko, hori hala ez balitz, mugimendu hau guztia ez litzateke gertatuko bat-bateko kantuak duen indarragatik bakarrik.

Bertsolaritzaren tokia euskararen komunitatean

Euskal kultur jardunean bizi-bizirik dagoen agerpenetakoa da bertsolaritza. 1993an egin zen azterketa soziologikoak eman diezaguke bertsolaritzak gure hiztun komunitatean duen lekuaren ikuspegi orokorra: euskal hiztunen %15ek oso bertsoaletzat dute beren burua, %35ek bertsoaletzat eta beste %28k nolabaiteko zaletasuna dutela adierazten dute. Guztiak batuz %78 egiten dute. Esan beharra dago, ordea, ikerketa hori- gai honetaz dugun ikerketa serio bakarra- bertsolaritzaren gailurreko boladan egin zuela SIADECOK, eta datuak apalduak izango direla urte batzuk geroago, baina bertsolaritzak gizartean duen isla eta onarpenaren erreferentzia bezala balio diezaguke.

Ikerketak dio hiru zirkulu konzentrikotan bana daitekeela bertsotarako zaletasuna euskararen komunitatean. Zirkulurik zentralenean edo sendoenean, gunerik zaleenean, badago aski masa kritiko

BERTSOLARITZAREN GIZARTE ETA KULTUR EZAUGARRIAK
(JON SARASUA)

bertsolaritza deitzen den kantu inprobisatuaren adierazpide hau etorkizunean bizi dadin. Hau da, bertsolaritzak etorkizunerako behar dituen partaide guztien (bertsolari, gai-jartzaile, kritikoa, epaile, irakasle, antolatzaile, bertsozale engaiatu) biziberritzea edo transmisioa gertatzen da ehuneko hamabost horren barruan. Bada, beraz, kultur jardun honen etorkizuna seguratu duen muina.

Baina ez da kasualitatez gertatu bertsolaritza biziberritzeko aski talde sendoa egotea gaur egun Euskal Herrian. Batetik, badu oinarri historikoa, bertsolaritzak euskal herrietan duen tokia ez da oraingoa. Baina, bestetik, azken 25 urteotan bertsolari belaunaldi batek bertsogintza berritzeko, eta gaur egungo gizarterako eduki interesgarri hornitzeko egin duen ahaleginaren emaitza ere bada; eta, batez ere, azken 17 urteotan, Bertsozale Elkartearen inguruan bertsolaritza kolektibo bezala gidatu duten bertsolari, bertsozale eta antolatzaile belaunaldi batek garatu duen estrategia soziokulturalaren emaitza.

Egungo bertsogintzaren adierazmailak

Hainbat adierazmaila edo eremutan agertzen da egungo bertsogintza, baina ez da euskarari darion ahozkotasan osoa; euskarari darion ahozkotasanaren barruan zati bat da, eta zati horren barruan ere badaukagu azpiekositena txiki bat, ez gara bakarrik plazako bertsogintza; hor daude bertso-eskolak eta beste hainbat jardun. Adierazmaila horiei gainbegiratu bat egiteko ahalegina da ondorengoa, bertsolaritzaren errealitate soziokulturalaren ikuspegi oso samar bat izate aldera. Bost adierazmaila bereiztuko ditugu:

1.- Jendaurreko ikuskizuna edo saioa

Gaurko bertsolaritzaren maila gorena, erdigunea, ikusgarri edo ikuskizun moduan duen adierazmaila da. Urtero 1200 bertso-saio inguru antolatzen dira euskararen geografian zehar. Saio horiek guztiak ez dute formaltasun maila bera: hirietako zinema-areto edo antzokietatik hasi eta herriko jaietako plazako saioetaraino doaz, pilotalekuetako saioetatik eta bertso-afarrietatik pasatuta. Emanaldi horietan gutxienez bi bertsolari eta gehienez zortzik hartzen dute parte, antolatzaileek horretan diharduten 100 bertsolari ingurutik aukeratuta (deituenak 20 inguru dira).

Jendaurreko saio hauen artean hainbat mota bereiz ditzakegu:

- Gai-jartzaile batek gidatutako emanaldia.
- Bi edo hiru bertsolariaren arteko saio librea, hasi eta buka bertsolariak berek gidatzen dutena aipatu beharreko gaiak proposatzen dituen gidaririk gabe.
- Mahai ondoko emanaldia, espresuki horretarako antolatzen diren otorduen ondoren.
- Bestelako ospakizunetako saio osagarriak: hiletak, ezkontzak, inaugurazioak, ekitaldi politikoak, omenaldiak, beste hainbat gizarte ekitaldi... Formatu berriak: bertso-tramak (gidariak proposatzen duen nolabaiteko antzerki-gidoi bat garatuz egiten den bat-bateko saioa), eta saio esperimentalak (gai bakar baten inguruko monografikoak, musikak lagunduta egindakoak...).

2.- Sariketa eta txapelketa

Jendaurreko emanaldien adierazpen berezi bat bertsolarien arteko sariketa edo txapelketena da. Puntuaketa baten bitartez sariak banatzen dituen epaimahai baten aurrean lehiatzen dira bertsolariak. Sariketa eta txapelketa hauek haurren artean, gazteen artean, bailaraka nahiz herrialdeka jokatzeko dira, eta lau urtez behin antolatzen den bertso lehiaketa gorena da denen gailurra: Euskal Herriko Txapelketa Nagusia.

3.- Taldeko jardun ludiko ez-formala: bertso-eskola

Bertsolaritzaren beste adierazmaila bat taldeko jolasa da, tokian-tokiko bertso- eskoletan garatzen den ahozko jardun ludikoa. Garai batean, jardun informala hau sagardotegi, ostatu eta baserrietan gertatzen zen, eta gaur egun hiri eta herrietan berariaz sortzen diren talde edo bertso-ekoletan egiten da. Alde batetik, bertsolaritzaren adierazpenik espontaneoena da berau, eta, beste aldetik, bertsolaritzaren biharko eragileak sortuko dituen oinarritzko egitura da.

Bertsozale Elkartearen ardatz nagusiak hedapena, transmisioa eta bilketa-ikerketa baldin badira, lehenengo bi egiteko horiek herri batean garatuko lituzkeen oinarritzko nukleoa izango litzateke bertso-eskola. Hau da, bere inguruan belaunaldi berrietara bertsolaritza transmitituko lukeen taldea izateaz gainera, ingurune horretan bertso-saioak antolatuko lituzke, gai-jartzaile lana egingo luke, bertso-saio informalak beteko lituzke, bertso-saio formaletan parte hartuko luke... Beraz, esan dezakegu, mugimenduaren oinarritzko zelula izan daitekeela bertso-eskola. Gaztelaniara itzuli behar izan genuenean “taller” jarri genuen “escuela” jarri beharrean, eta nire ustez izen egokiagoa da “bertso-tailerra” “bertso-eskola” baino, eskola hitzak akademiarekin lotura handia baitu.

Bertso-ekoletan edo bertso-tailerren gaiarekin lotuta badago beste gai bat, interesgarria eta hainbat galdera sorrarazten dizkiguna: bertsogintzaren jarduna zenbateraino da bakarrik nazio mailako zirkuituan funtzionatu behar duena? Hau da, nazio mailako elitetik kanpora gelditzen den bertsolariak nazio mailako zirkuitu horretan parte hartzera iristea izan behar du helburu bakar, edo badauzka beste esparru batzuk? Edo galdera bera beste modu batera eginda: badaukate zentzurik herrialde eta eskualde mailako zirkuitu txikiak, beste kultur edo kirol adierazpide batzuetan gertatzen den moduan? Nazio mailako futbolari edo nazio mailako musikari izateak bakarrik du zentzua, edo badauka musikari batek herrian bere tokia, herrian musika jotzeko eta herrian koro bat sortzeko, nahiz eta nazio mailako zirkuitu batean aritu ez? Izan daiteke norbait herri mailako bertsolari? Egon daiteke norbait herri mailako bertsolari izatea beste helbururik ez duena, eta hortik elika daiteke gero nazio mailako elitea? Uste dut airean dauden galderak direla, eta lotura zuzena daukatela bertso-ekoletan edo bertso-tailerren gaiarekin.

4.- Irakaskuntza arautuko eduki eta ariketa

Azken hamabost urteotan lehen eta bigarren mailako irakaskuntza orokorrean sartu da bertsolaritza, 1981. urtean lehen pausoak ematen hasita. Ez da orokorra baina bai aski hedatua bertsolaritza hizkuntza edo literaturaren irakaskuntzarako eduki eta osagarri bezala erabiltzea. Material didaktiko sorta nahiko zabala bada dagoeneko argitaratua, eta une honetan eskolako hizkuntza formakuntzan bertsolaritzak egin dezakeen ekarpenari buruzko planteamendu pedagogiko

BERTSOLARITZAREN GIZARTE ETA KULTUR EZAUGARRIAK
(JON SARASUA)

berriak garatzen ari dira, batez ere belaunaldi berrietan nabari diren ahozko adierazpeneko hutsuneak betetzera bideratuak.

Edonola ere, bertsolaritzak hezkuntzan egin dezakeen ekarpenaz hausnarketa, eta hiru urtetik hemezortzi urtera bitarteko euskal ikasleen oinarritzko curriculumean txertatzeko egin beharreko mapa oraindik egiteke dauzkagu, eta uste dut badela hori ganoraz, bere osotasunean, gauzatzeko garaia. **Bat-bateko bertsolaritza Gakoak eta azterbideak** liburuan nolabaiteko multzokatze bat egin genuen, beharrezkoa dugun argazki horretara noizbait iristeko helburuarekin. Hona hemen multzokatze hura laburbilduta:

- *Pertsonaren gaitasunen garapena landu*
 - Inprobisaziorako jarrera eta gaitasunak
 - Komunikazio-ekintza antolatzeko gaitasunak
 - Erlazio gaitasunak
 - Oroimenaren garapena.
- *Ikaslea kultur ondarean txertatu*
- *Hizkuntza gaitasunen lanketa osagarria, pannazea izan gabe*
- *Musika gaitasunen lanketa osagarria*

5.- Hedabideetako azpigeneroa

Bertsolaritzak ikus-entzunezko hedabideetako azpigenero gisa ere badu bere tokia, irrati eta telebistako programa berezien bidez. Uste dut, ordea, irradian oraindik ez ditugula garatu gure ahalbide guztiak. Benetan azpigenero sendo eta original izateko baliabideak ematen ditu bertsolaritzak irradian, eta azken bi hamarkadetan ez dirudi askorik aurreratu dugunik.

GAUR EGUNGO GIZARTEAN BERTSOLARITZA BEREZI EGITEN DUTEN BALIOAK ETA EZAUGARRIAK

Hainbat ezaugarri iradokitzaile

Bertsolaritzak baditu hainbat ezaugarri, gaur egungo masa kulturaren norabide nagusietatik urrun antzean dabilzanak. Beraziki iradokitzaileak diren batzuk aipatuko ditugu.

1.- Bat-batekotasuna edo serieko erreprodukzioerik eza

Ekoizpen eta merkatu modernoaren oinarrietako bat serieko erreprodukzioa da. Lehenago bakarrak eta errepikaezinak ziren ekoizpenak (etxean egindako jantzi bat, postre bat), orain serieko ekoizpenak dira gehienbat. *Kultura* deitzen dugun kontsumoaren zati handi bat ere horrelako erreprodukzioek osatzen dute. Ohikoenetatik hasi (liburu, disko, bideo, film) eta komunikazioaren teknologiarik

BERTSOLARITZAREN GIZARTE ETA KULTUR EZAUGARRIAK
(JON SARASUA)

berrienari esker hedatzen direnetaraino, oinarrian erreprodukzioa dago, oso urruti, beste une eta inguru batean sortutako zerbaiten erreprodukzioa.

Bestelakoak dira jendearen aurrean zuzenean gertatzen diren kultur adierazpenak. Adierazpen horietan ere, gehienetan erreprodukzio maila aipagarria dago. Zuzenean emandako kanta bat ez da sekula aurreko aldikotik berdin-berdina izango, baina kanta bera da, beste noizbait sortutako ekoizpen baten hainbatgarren erreprodukzioa. Eta gauza bera antzerki eta bestelako kultur adierazpenetan.

Bertsolaritza da –eta honetan datza bere ekarpena nahiz bere muga- inolako serieko erreprodukziotan oinarritzen ez den jendaurreko kultur adierazpen gutxitako bat. Bertso-saio bat horixe baita bereziki, lehenago *ad-hoc* ekoiztako ezer ere ez erreproduzitzea. Bere muina bat-batekotasuna da, gunean gune eta unean uneko originaltasun erradikala. Bertsolarien sorkuntza errepikaezina da: une iragankor batean sortzeko gaitasunak ematen dio zentzua bertsoari. Iragankortasun atzeraezinezko horretan, bat-batean ari denaren amildegi txiki horretan, du zentzua bertsoak, hor sortzen dira bai lastoaren arruntasuna eta bai alearen miraria.

2.- Entzulearen parte-hartzea eta feedback ezinbestekoa

Jendaurreko ikuskizun guztietan garrantzitsua da ikus-entzuleen erantzuna, eta bertsolaritzan (bertso-saioetan) garrantzitsua ez ezik sorkuntzan bertan parte hartzen duen elementu funtsezkoa da. Izan ere, ikusgarria bat-batekotasunean oinarritzen denean, une-gune horretako errepikaezintasunean, sortzaile eta entzulearen artean gertatzen denak garrantzi berezia hartzen du, muinean berean eragiten du.

3.- Zuzenekotasuna, taldekotasuna, kalekotasuna

Beste hainbat adierazpenetan bezalatsu, bertsolaritzak batez ere zuzenean dihardu; entzulea ekintza publiko batean biltzera eta esku-hartzera bultzatzen du. Gure garaiotako masen kulturaren, kulturaren zati handi bat bakarka eta pribatuan kontsumitzen da, norbere etxean. *Kultura* deitzen dugun horren adierazpen gehienak, liburuak, diskoak, bideoak, webguneak... horrela jasotzen ditugu. Musika, antzerki eta hainbat arte emankizunekin batera bertsolaritzak jendea kalera ateratzen du. Kalekotasuna, zuzenekotasuna eta taldekotasuna berezkoak ditu bertsolaritzak, hor sortzen da sortzaileen eta entzuleriaren arteko konplizitate, bat-bateko bertso-sorkuntzarako ore ezinbestekoa.

4.- Publikoaren izaera integratua

Bertsolaritzaren publikoa ez da belaunaldi tarte jakin bat edo euskaldun mota berezi bat. Neurri batean euskal komunitatearen heterogeneotasuna zeharkatzen du; adin, kultur maila, lanbide eta joera ezberdineko euskaldunen abaniko zabal samarra alegia, bai saioen behaketak, bai egindako azterketa soziologikoek erakusten dutenez.

5.- Bertsolariaren eskuragarritasuna

BERTSOLARITZAREN GIZARTE ETA KULTUR EZAUGARRIAK
(JON SARASUA)

Nahasgarria izan ohi da kultura popularra edo herri kultura zer den esatea. Herri xeheak gehien kontsumitzen duen eta gehien maite duen kultura popularra Hollywood-eko filmak dira. Kontua, beraz, ez da herriak zer kontsumitzen duen, herriak zer sortzen duen baizik. Hau da, ea sortzailea bera kontsumitzaileen gune horretan txertatua dagoen, kontsumitzaileen gune horretako pertsona bat gehiago den, estatus ekonomiko eta sozial berezirik ez duena. Nire ustez bertsolaria bere kultur sorkuntza kontsumitzen duen gune horretako partaide bat gehiago da, bertsolari izateagatik ez dago beste estatus ekonomiko batean; fisikoki eta sinbolikoki ere ez da hortik urruntzen. Beraz, bertsolaria gune horretako edozeinentzat da eskuragarria, bertsogintza xumea da-eta ekonomikoki.

Zer kantatzen du bertsolariak?

Gurea bezalako gizarte moderno, postmoderno, industrial, bidaiari eta zatitu batean, bertsolaritzak sorrarazten duen erantzun sozialaren gakoetako bat entzuleria heterogeneo eta berriarengana iristen diren edukiak kantatzea da. Bertsolariak gizarte-bizitzako alderdi orori buruz kantatzen du printzipioz. Jakina, bizitzaren alderdi askok ihes egiten diote: garai bakoitzean interesgarri ez diren gaiak edo gizarteak inkontzienteki tabu dituenak bertsolariak ere hala ditu. Baina, nolabait esateko, sukaldako mahaian, tabernan edo irratiko berriketaldietan aipatzen diren gai guztiak izan dezakete lekua bertso-saioetan. Are gehiago, ohiko beste zirkuluetan asko jorratzen ez diren gaiak ere badute lekua bertsolaritzan, azken urteotan gai-jartzaileen aldetik gai eta ikuspegi berriak bilatzeko dagoen kezka eta gogoagatik.

Komunikazio zirkuitu alternatibo gisako bat da bertsolaritza, nazio, estatu, eskualde, herri edo mundu mailako aktualitateari hausnarraldia ematen dion eremu bat, poetikoki batzuetan, ironikoki edo umore bila besteetan.

Hausnarraldi hitza ez dago gaizki hautatua, iradokitzailea da. Hausnartzea zera da bere lehen zentzuan: murtzikatu gabe irentsitateko belarra urdaitetik berriz ahora ekartzen du behiak, eta han lasaiki murtzikatzen du, bere ahoko zukuekin ondo nahastuz, osteraren irensteko. Gaur egun, mendebaldeko hiritarrak hedabide masiboetatik berebiziko informazio kopurua irensten du, eta gizaki (post)modernoaren ezaugarrietako bat informazio interesatu hori guztia digeritzeko ezintasuna da. Informazio horren zati bat umore tonuan edo klabe pertsonal nahiz poetikoan hausnartzeko aukera txiki bat eskaintzen du bertsolaritzak, jarduera artistiko parte-hartzaile kolektibo baten bidez.

Zalantzan jar liteke gaurkotasunezko gai bati edo galdera unibertsal bati bertsolariaren inprobisazioak nolako ekarpena egin liezaiokeen. Eskasa dela argudia daiteke, ekarpen intelektualak gaur egun azterketa zientifiko serioak eta lan literario mamitsuak eskatzen dituela. Bada, beste muturrean, inprobisazioan berebiziko ekarpen bereziak ikusten dituenik ere. Nolanahi ere, bertsolariak jolastu egiten du, inprobisazio poetiko eta ludikoaren bitartez esku artean duen informazio multzoa nahasten du, gozatu egiten du, eta asmatzen duenean, gozarazi ere bai.

Bertsolariaren ekarpena, ekarpenik badu, horixe da hain zuzen, nahastu egiten duela, mailak nahasten dituela: aktualitateko gai sozialak, politikoak, sexualak, entzuleriari egiten dizkion erreferentziak, guztia aipamen pertsonalez ziprztindurik eta bat-batean ari diren kideen mezuekin lehian. Nahasketa horretan funtzionatzen du inprobisazioaren originaltasunak.

Informazio sozial eta pertsonalari hausnarraldi kantatua ematen dion eremu horretan bertsolariak komunikatzaile eta poetaren arteko papera jokatzeko du, liderraren eta bufoiaren artekoa, egunkariko zutabegilearen eta marrazkilari satirikoaren artekoa, eta aldi berean ingurune sozial horretako partaide arrunt bat da.

Orekak eta erronkak

Azken bi hamarkadetan bertsolaritza bultzatu duen mugimenduak garai berriak eskatzen dituzten desafioei aurre egiteko intuizio gidariak izan ditu; funtsean bertsolaritza senari jaregin gabe berau gaurko kulturbideetan garatzeko oreka dinamikoaren intuizio gidariak. Honela laburbil ditzakegu:

1.- Geure balioak aintzatetsi

Gure mugimenduaren intuizio gidaria, eta horretan meritua du zalantzarik gabe, geure balioak aintzat hartzea izan da, nahiz eta itxura batean “arraroak” izan; lehen aipatu ditugun balio txikiak edo ezaugarriak aintzat hartzea, hain zuzen ere:

- Bat-batekotasuna
- Serieko erreprodukzioerik eza
- Sortzailearen eskuragarritasuna
- Entzulearen parte-hartzea
- Feedback-aren erabateko garrantzia
- Publikoaren izaera integratua, zentzu kolektibo eta zuzena

Ezaugarri horiek baloratu egin ditugu, guretzat funtzionatu egiten zutelako. Eta hortik abiatuta, arian-arian, gogoeta bat egin dugu: egia da aipatu ezaugarriak gaur egungo kulturbideetan ez direla nagusi, eta bitxiak izan gaitezkeela; beharbada ez daukagu etorkizun oparorik, eta beharbada hipertrofiatuta gaude, eta zenbaitentzat barregarri geratzen ari gara, baina guri funtzionatu egiten digute. Balio horiek aintzatesteak eman digu konfiantza aurrera egiteko eta probatzen, nahasten, hasteko; egungo kulturbideetan abiadura hartzen hasteko, betiere jakinda abiadura horrek arriskuak ekarriko dizkigula edozein bihurtzetan, baina ekarpenen bat egiten dugula uste dut.

2.- Bizi, ez iraun

Bertsolaritza mugimenduaren planteamendua ez da masa kulturaren ezaugarri guztiak mespretxagarriak direla eta bertsolaritza ezaugarri *idiliko* guztiei eutsi behar zaiela kosta ahala kosta. Ez du irudi hainbeste mendetan iraun duen euskaran eta bere kulturaren jarrera hori dagoenik sakonean. Jarrera horiekin seguru asko ez bertsolaritza eta ez euskara ere ez lirakeke biziko. Bertsolaritza gaurkotasunean bizitzeko apustua egin du, gaurko errealitatean eta bihurtzetan. Posible ote da, ordea, indarrean dauden joera eta baldintzetan *funtzionalitatearen* eta nor izatearen arteko balantzari eustea? Non dago moldatzearen eta nortasunaren arteko oreka puntua? Sekula agortzen ez den galdera da, sustrai luzedun kultura kokorrek behintzat etengabe erantzun beharrekoa.

BERTSOLARITZAREN GIZARTE ETA KULTUR EZAUGARRIAK
(JON SARASUA)

Moldatzearen eta nortasunaren arteko oreka puntuaren galderak badu erantzun bat bederen: sortzen jarraitzea edo jarrera sortzailea izatea. Izan ere, sortzen ez baduzu, edo kopiatu egiten duzu-amerikarrek edo kultura nagusiagoek egiten dutena kopiatu eta haien antzekoago izaten saiatu, adibidez ETB1ek egiten duen moduan programa ia guztietan, hau da, bestea da beti erreferentzia eta bestearen mailara iristen ahalegintzen da-, edo zurea defenditzen duzu paranoikoki, eta horrekin zure kultura esklerotizatzen eta folklorizatzen duzu. Nire ustez, zirkulu zoro horretatik irteteko bide bakarra, bereziki gurea bezalako kultura txikietan edota gurea bezalako adierazpide ahozkoetan, sortzea da. Sortzen duzunean aldatzen ari zara, baina zeure ekimenetik ari zara aldatzen, eta bi gauza nahastuz: zeure tradizioa eta gaur egungo gizarteak ematen dizkizun aukerak. Nahasten ari zarenean sortzen ari zara eta tradizio bati jarraitzen ari zara. Tradizioa ez da eutsi behar zaion zerbait, sorkuntza pilaketa bat baizik. Eta sorkuntza pilaketa horrekin leial izateko modu bakarra sortzen jarraitzea da.

3.- Garatzearen arriskua hartu

Bertsolariek, eta orokorki mugimendu honetan engaiatu direnek, gune eta formatu berrietan saiatzearen alde jokatu dute, telebistan sartzearen alde, bertsolaritzak orain arte ukitu ez zituen forma eta eremuak bilatzearen alde.

Horrek hainbat kontraesan, arrisku eta distortsio ekarri ditu. Distortsio horien aurrean adi egoteko jarrera izan du, neurri batean, bertsolaritzaren mugimenduak. Adibidez, asteroko antologia biltzen duen audientzia dezenteko programa batekin telebistan sartzeari bertsosozalatasuna hedatzeko energia handia da. Baina energia horrek energia nuklearraren ezaugarriak izan ditzake: bere indarragatik, hain zuzen, arrisku handiak ditu, nola erabiltzen den kontrolatu ezean.

Arriskuak hor direla jakin arren, borroka eremu horretantxe jokatu nahi du bertsolaritzaren mugimenduak. Bertsolaritza biziarazten jarraitu nahi du, bide berriek dakartzaten aldaketei aurre eginez, bat-batekotasun kantatuaren muinari eutsiz eta, ahal dela, muin hori sekula baino sakonago garatuz, bere xumetasunean, bere biluztasunean, inprobisazioaren benetakotasunean.

Zalantza eta kontraizanen artean, bertsolaritzaren errealitatea interesgarria dela esan daiteke, maila ezberdinetako adierazleei so eginda: emanaldien kopurua eta kalitatea, inprobisazioaren benetakotasuna, antolaketa gaitasuna, harrera soziala, sortzaile gazteen eraberritzea eta eskolako zabalkundea.

Garapen honetan gako batzuk azpimarratuko ditut- badakit egon gehiago daudela baina-, garapena zergatik gertatu den azaltzen dutenak:

3.1.- AUTOKONFIANTZAZKO JARRERA

Bertsolariak berak berez garatu behar izaten du oholtzan autokonfiantza, bat-batean jarduten baitu eta inoiz ez baitu barregarri ez geratzeko moduan jardungo duen ziurtasun osorik. Bertsolariak bertsosozalatasun sortzen ditu, inprobisatu egiten du. Beste maila batean, baina bertsolaritzaren mugimendua ere nolabait inprobisatzen ari da, masa-kulturaren desafioen aurrean kultur-ondare honen bideak asmatzen dihardu. Bide hori inprobisatzailearen autokonfiantza berarekin egin beharrekoa da, eta

BERTSOLARITZAREN GIZARTE ETA KULTUR EZAUGARRIAK
(JON SARASUA)

egin ere hala egin da orain arte, neurri batean. Maila ezberdinetan agertzen da bertsolariaren mugimenduaren konfiantza hau:

- Ahozkotasanaren hipertrofia eta idatzizko ekoizpenaren parean erdipurdiko izatea egozten diguten intelektual eta literatur munduko ahotsen aurreko autokonfiantza.
- Garenarekiko eta nahi dugunarekiko autokonfiantzako jarrera. Gure hizkuntza eta kulturaren biziraupeneko desafio zailaren aurreko autokonfiantza.
- Ikur ezberdineko presio politikoen aurreko autokonfiantza, gure herriak bizi duen eta kultur zereginetan ere eragina duen ataka politiko luzean.
- Kanpoko erreferentziarik gabe, ipartzat hartzeko moduko bide-erakuslerik ezean eta inorekin homologatu ezinik, asmatu beharreko bidean aurrera joateko konfiantza.

3.2.- TRANSMISIOA

Bertsozale Elkarteak sortu aurretik zegoeneko erretzen hasia zen transmisioaren intuizioa, eta bertsolariak irakasten hasiak ziren hala bertso-eskolan nola zenbait ikastetxetan. Hori, jakina, lehen aipatu dugunarekin lotua dago. Hau da, bizi nahian mende eta milurteko asko daramagun kultura txiki bat izateak, eta gaur egun bizi dugun egoera bereziak transmisiorako sena piztuarazi digu. Zenbait hizkuntzak hedapena, espazioa, izan dute obsesio, eta guk, aldiz, hedapenaren lekuan dendora, iraupena izan dugu obsesio.

Eta bertsolariaren bide horretatik goaz; transmisioetik hasi zen mugimendu hau guztia, eta bertsolariaren mugimenduak azken bi hamarkada hauetan belaunaldi gazteenganako transmisioaren aldeko apustu nabarmena egin du; esan daiteke ia-ia obsesio ere bihurtu dela transmisioaren kontua. Bertso-eskolak eta bertso-talde berriak sortu ditugu, ikastetxeetan sartu gara, eta bertsolari talde bakoitzak mimo inkontziente bat izan du hurrengo belaunaldiari bidea irekitzeko eta jakintza guztia transmititzeko. Eta, batez ere, aurrera joateko gaitasuna erakutsi duten gazteei arreta berezia jarri zaie, zenbaitetan gehiegizkoa ere bai, transmisiorako obsesio horren ondorioz.

3.3.- BERTSOZALE ELKARTEA

Mugimendu hau guztia posible egin duen giltza Bertsozale Elkartearen sorrera izan da. Beronek bildu du bertsolariaren inguruko mugimendua eta maila guztietan sustatu du kultur jardun hau.

Antolatzeko bide berezi bat hartu zuen bertso munduak 1986 inguruan. Hain zuzen ere horixe: bere burua antolatzeko erabakia, autoeratzeko erabakia. Bertsolariaren geroa kanpoko faktoreen esku utzi gabe, bertsolariaren hala edo hola inplikaturik sentitzen direnen elkargunea sortu eta proiektu baten inguruan lan egitea izan du ipar. Hitz gutxitan laburbiltzen da bere proiektua: bertsolariaren biziberritzeko oinarriak jartzea.

A) ERAKUNDEAREN EZAUGARRI OROKORRAK

BERTSOLARITZAREN GIZARTE ETA KULTUR EZAUGARRIAK
(JON SARASUA)

Bertsozale Elkarteak 1.400 bazkide inguru ditu. Euskal Herriko lurraldeetan deszentralizaturik dago: Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Araba eta Iparraldean elkarte federatu bana dago martxan, eta guztien artean osatzen dute Euskal Herriko elkarteak. Bertsolariaren inguruko hainbat eragile biltzen ditu (bertsolariak, bertso-jartzaileak, gai-jartzaileak, epaileak, irakasleak, antolatzaileak, bertsozale engaiatuak), guztien artean estrategiak marraztu eta hainbat esparrutan ekintzak aurrera ateratzeko: Dokumentazio Zentroaren kudeaketa, hedabide eta erakundeekiko negoziazioak, txapelketak, ekitaldi bereziak, bertso-eskolen koordinazioa, ikerketa, argitalpenak, nazioarteko harremanak eta abar eta abar.

Hamazazpi urteko ibilian, pixkanaka kultur proiektu bat marraztu dugu, eta erreferentzia argi batzuekin jokatzeko oinarriak jarri dira. Elkartearen iparra, bertsolariaren kultur proiektua, hiru ardatzetan marrazten da: belaunaldi-transmisioa, hedapenaren antolaketa eta dokumentazioa-ikerketa. Badu, gainera, hiru ardatzak biltzen dituen laugarren bat: lurraldetasuna. Alegia, proiektua euskararen lurraldetasun osoan garatzea, hizkuntzaren bizitasunaren aldetik unerik zailenetan dauden lurraldeak bigarren mailan utzi gabe.

Bertsozale Elkartearen puntu zail eta beroenetako bat bertsolariak eta bertsozaleak nola konbinatu, nola bateratu, asmatzea izan da, eta bestalde, bertsolariak berak nola konbinatu bere baitan artista izaera eta mugimendu bateko partaide, aktibista, militante edo borondatezko langile izaera. Akats handia egin genuen hasieran izena Bertsolari Elkarteak jarri genionean, hasieratik beretik baitzegoen argi Bertsozale Elkarteak zela, bertsozaletasunak biltzen gintuela eta ez bertsolarietasunak. Elkarteak bultzatzen ari izan dira bertsolari ez diren bertsozaleak, eta bertako zereginetan pisuaren zati handia euren izan dute eta dute oraindik ere. Egia da, ordea, hainbat bertsolari izan dutela beren baitan bi profil horiek nahasteko borondatea eta jarrera. Hau da, batetik bertsolari ginen oholtzan, baina bestetik mugimendu soziokultural bat eraikitzen ari ginen, mugimendu bat sortzeak eskatzen dituen eskakizun guztiekin: antolatu, bilerak egin, dirua eskatu... Nire ustez oso garrantzitsua izan zen bertsolari talde handi bat horretan engaiatzea, eta garrantzitsua izan zen jendeak ikustea gero tabladuan ere puntako izan diren hainbat bertsolari, txapelduna eta abar, horretan buru-belarri engaiatuta zebiltzala. Horrek beste zentzu bat eman dio gure elkarteari, elkarte original bat izan da zentzu horretan, artistak eurak nahiz arte horren zaleak funditu edo galdatu egin dituelako lantaldeetan: Seguru asko bertsolari batzuk mugimenduko partaide hain konprometitu izan ez balira, ez genukeen behar besteko indar moralik izango bertsozaleek mugimendu honetan eman duten guztia eman zezaten. Beraz, bertsolarien parte-hartzea ezinbestekoa izan da, eta halaxe izango da gerora ere mugimendua osasuntsu egongo bada.

b) Bertsolariaren kultur proiektuaren ardatzak

Elkartearen ibilbidean, hasierako 'bertsolariaren bultzatu nahi' hartatik proiektu sendoago bat mamituz joan da pixkanaka. Lehenago esan bezala, hiru ardatz ditu proiektu horrek: transmisioa, bilketa-ikerketa eta hedapena. Eta sentsibiltate osagarri bat: lurraldetasuna.

Aletu ditzagun labur-labur bertsolariaren kultur proiektuaren ardatzak:

- **Transmisioa:** Belaunaldi berrietara bertsolariaren transmisioa ziurtatzea du ipar. Bi lan-ildo nagusi ditu alor honek: batetik, irakaskuntza arautuan txertatutako bertsolariaren jarraipena

BERTSOLARITZAREN GIZARTE ETA KULTUR EZAUGARRIAK
(JON SARASUA)

egitea eta, bestetik, bertso-eskolak edo bertso-tailerrak. Euskal Herriko hezkuntzan bertsolariak eta, zabalago hartuta, ahozko sorkuntza artistikoei egin behar duten ekarpena ikertzea eta sekuentzia didaktikoa eskaintzea da Elkarteak esku artean duen lanetako bat. Bestalde, eskola arautuaz kanpoko bertso-eskolen koordinazioak ahalegin berezia eskatzen du; izan ere, euskal herrietan zehar hedaturik dauden bertso-eskola hauek dira gaurko eta biharko bertsolariak mugimenduaren gune eta hazitoki.

- **Hedapena:** Bertsolariaren hedapen iraunkor eta orekatua lortzea du ipar lan-ildo honek. Kontua ez da besterik gabe eta 'zenbat eta gehiago, hobe' lelopean bertsoa hedatzea, baizik eta modu eramangarri batean zaletasuna sendotzea. Hainbat fronte kontuan izatea eskatzen du: hedabideetan bertsolariak izan dezakeen presentzia zaintzea, lurraldean lurraldeko bertsolariak sustatzea, saio bereziak antolatzea, txapelketak egitea, argitalpenak ateratzea eta, oro har, hedapenarekin zer ikusia duten ekimenak martxan jartzea.
- **Bilketa-ikerketa:** Hirugarren ardatzaren iparra bertsolariak ikerketaren eta dokumentazioaren alorrean txertatzea da. Bertsolariaren emaitzak modu ez orokor baina bai sistematikoan biltzen eta kultur-arlo hau gaur eta biharko ikerbideetan sartzen hasia dago. Bertsolariak jakingai eta aztergai izan dadin oinarriko tresna nagusia Xenpelar Dokumentazio Zentroa da. Elkartearen apustu estrategikoa izan da, eta da, zalantzarik gabe.
- **Lurraldetasuna:** euskararen lurraldea da bertsolariarena. Hasieratik Euskal Herri osoko jendea inplikatu da Bertsozale Elkartearen. Iparraldean, Gipuzkoan, Araban, Bizkaian eta Nafarroan antolakuntza bana sortu da. Une honetan EHBE bost elkarte horien bilgunea da. Izan ere Bizkaiko Bertsozale Elkarteak, Arabako Bertsozale Elkarteak, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Iparraldeko Bertsolarien Lagunak eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak federazio bidez gorpuzten dute EHBE. Antolakuntzaz aparte helburuetan ere lurraldetasuna beti presente dago: euskararen osasuna ahulen dagoen lekuetan ahalegin eta inbertsio bereziak egitea dagokio Bertsozale Elkarteari, bertsolariak euskara biziberritzeko tresna izan dadin nahi dugu-eta.

c) Bertsolariaren autoeraketa: gizartegintza modu bat kultur arloan

Kultur proiektu bat garatzeaz gainera, bere esparrua autoeratzearen aldeko apustua egin du bertsolariaren mugimenduak. Ondoko hauek dira utoeraketa horren oinarriak:

- Inplikatuaren borondatezko partaidetza.
- Arrazoi ideologikoengatik mugarik eza eta barne aniztasunaren aitortzea.
- Antolakuntza parte-hartzaile eta demokratikoa.
- Tokian-tokikoaren eta lurraldean lurraldeko prozesuen errespetua.
- Eztabaidaren kultura eta jarrera ezberdinen garapena: adostasun umotu eta landua, gehiengo-gutxiengo jokoaren ginetik.
- Borondatezko lanaren eta lan profesionalaren arteko konbinaketa.

BERTSOLARITZAREN GIZARTE ETA KULTUR EZAUGARRIAK
(JON SARASUA)

Bertsozale Elkartea sortu zenez geroztik hamazazpi urte igaro dira, eta adin nagusitasunera iristera doan honetan, uste dut mundura joaten hasteko inoiz baino helduago gaudela, eta bat-bateko kantuaren inguruan sor litekeen sare horretan nodo edo korapilo-eragile izateko moduan egon gaitzkeela.